

Baratxuritarak

SAGASTIAK lorez janzten direnean bezalako ikuskizun gutxi. Oteizak zituen pilotalekuen eta jentil baratzeen pare dut nik sagastia. Eta oraintxe gorenean. Sagardoa eta sagarra bera deus ez lorerik gabe. Lili xume bat bizitza osoaren udaberri. Herri baten udaberri. Gogora ekarri: ez ginatke egungo Euskal Herririk sagastirik gabe. Eta ospatu.

Sagastian ez da soilik sagarrondo (*Malus x domestica*) loratzen. Ehunka landare loratzen da: azpiko aldeko belardian, enborretan

eta adarretan ditzuten apopiloak... Denek osatzen dute sagastiaren loraldia. Edozein ekosistematan bezala, sagasti batean zenbat eta lore desberdin gehiago, orduan eta sasoi hobea. Sagasti batean lore mota gutxi bada, argil Tratatzeko produktu asko erabiltzen denaren adierazle. Beraz, lore mota asko eta oparo duen sagastiko sagar eta sagarkiak jan-edan.

Sagarrondoaren lilitze-lagunetatik baratxuriek (*Allium* sp) arreta pizten didate urtero. Eta gero eta gehiago. Maizago topatzen baiti-

tut, sagastiz landa ere, bakoitza bere usain, dasta eta kolore ñabardurekin. Gure herrian *Allium* generoko hauek behintzat topa ditzakegu: *A. ampeloprasum*, *A. ericetorum*, *A. guttatum* subsp. *sardoum*, *A. moly*, *A. moschatum*, *A. naepolitenum*, *A. oleraceum*, *A. paniculatum*, *A. pyrenaicum*, *A. roseum*, *A. schoenoprasum*, *A. senescens* subsp. *Montanum*, *A. stearnii*, *A. sphaerocephalon*, *A. triquetrum*, *A. ursinum* subsp. *ursinum*, *A. victorialis*, *A. vianale*. ■



JAKOBA ERREKONDO

Orioko alkate-zigorra

AZKEN HOGEI URTE HAUETAN zenbat zuhaitz hil ote dugu desbrozadora edo motosegaz? Milaka eta milaka. Herritarron ondarearen puska eder bat. Herrietan eta hirietan belazei motz-motz eutsi behar horretan desbrozadora lanabes nagusi bilakatu da. Malgua da eta beste tresnak iritsi ezin diren bazterrak, zintarri-ertzak eta zuhaitz ipurdiak garbitzeko egokia da. Eta makina darabilenak ez daki zuhaitzen berri. Eta ez daki azala joz gero zauri latzak egiten direla. Eta zauri horiek izerdiaren gora-behera eragozten dutela. Eta buelta

osoa zaurituz gero zuhaitza hil egingo dela. Makinistak ez daki.

Makinistaren arduradun teknikoak eta hari kontratua egin dionak merezi dituzte bizkarrekoak. Zigor makilarekin danba eta zarta.

Argazkikoa Orioko maspil edo basagurbe bat da, *Sorbus torminalis*. Herriko beste makina bat zuhaitz bezala zigortua. Alkateari eta lorazainari emango nieke nik. Hagintearen makila den alkate-zigorrarekin berarekin, adibidez. ■